

ZENBAT BURU
Jokin Martinez

ERREPORTAIA
Patxi Arriola
eta Dalo

KALE INKESTA
San Anton:
Beharapenetara
joaten al zara?

BERBETAN
Iñaki Unzaga,
Mendaroko
ospitaleko gerentea

KIROLA
San Antonetako
pilota txapelketa

KULTURA
Filatelia
erakusketa

GAZTAROA
Arkitektura
ikasketak

BARREN

1997ko urtarrilaren 16a
V. urtea - 179. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Patxi Arriola Espainiako oilagorren txapelduna hirugarren aldiz



“Ar ranoa hegan bai no, txepet xa eskuan hobe”


MEDIKUNTZA eta KIRURGIA KONTSULTATEGIA ANALISIEN LABORATEGIA

- Metabolismoak eta elikadurak eragindako gora-beherak.
- Haur eta gaztetxoek hazkundera eta koskortzea.
- Gizentasuna. Medikuntza estetikoa.


Cesar G. de Martino
3.500.SS. Mediku kolegiatua
Elena Rodriguez Atxurra

Egiguren kalea, 6 - EIBAR - Tel. 20 60

JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI" Edari Banatzailea



SANTA ANA, 41 - ☎ 74 10 41 - 74 11 32



JOKIN MARTINEZ

Hilaren 4an, egunkaria irakurtzen ari nintzela txundindu egin ninduen berri bat ikusi nuen. Urtero bezala, Eusko Jaurlaritzak euskal antzerkiari ematen dion diru-laguntzaren zerrenda argitaratu zuen. Zerrenda honetan hamabost antzerki talde bakarrrik zeuden eta hauen artean 70 milioi pezeta banatuko dira. Diru laguntza hauek jasotzeko hogeita zortzi talde aurkeztu ziren. Diru laguntzaren kopurua 450.000 eta 6.000.000 pta. bitartekoa da. Eusko Jaurlaritzak antzerki talde bakoitzaren proiektuak aztertu eta 1996 urtean eginiko lanaren arabera banatu zuen dirua. Hau da, antzezpen gehien egin eta Euskal Herritik kanpo gehien saltzea lortu zutenak izan ziren sarituak. Ikusten denez, beraien begietan euskal antzerkia talde hauen bidez adierazten da eta beste taldeek ez dute ezer gehiagoren beharrik.

Euskal antzerkiaren egoera delikatu

eta larria da; gaur egun ezin daiteke euskal antzerkiaren azpiegituraz hitzegin, ez baita existitzen. Ez dago antzerki sare edo lokal alternatiborik antzerki taldeak askatasun osoz mugi daitezten. Posibilitateak oso murriztak dira. Hauen ordez, zortea dagoenean, frontoiak edo azken momentuko lokal zistrinak daude.

Eta antzerki merkatuaz zer? Hau oso urria eta eskasa da. Merkatua oso itxia denez, bertara heltzea oso zaila eta traba askoko bidea da.


Horregatik, antzerkitik bizitzea kimera hutsa da. Honen ondorioz, antzerkiko aktore eta aktoresek beste ogibide batzuk aurkitu behar izaten dituzte. Adi-

bide aipagarriena telebista eta zinea dira.

Hau dena ikusita, nola izan daiteke posible euskal antzerkia egoera larrian aurkitzea eta Eusko Jaurlaritzak egiten duen gauza bakarra lan gehien egiten duten antzerki taldeei diru laguntza osoa ematea?

“Antzerkia kimera hutsa da, horregatik aktore askok beste ogibide bat aurkitu behar izaten dute: zinea eta telebista dira aipagarriak”

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR

☎ 74 41 12

Publizitatea:

☎ 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

ERREDAKZIO KONTSEILUA

Andres Alberdi,
Rosa Agirregabiria

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Myriam Aldazabal

MAKETATZAILEA

Maite Rementeria

ADMINISTRAZIOA

Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez

KOLABORATZAILEAK

Irtati Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta,

Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao,

M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza,

Juanito Gorostiza, Antton Iriondo

KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ixidor Solupe, Leire Urkidi

eta Julen Zabaleta.

AZALEKO ARGAZKIA

Ricardo Molina

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu koop. E

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

DANOBAT
MAQUINAS HERRAMIENTA

Ikurrina: 20 urte

Urtarrilaren 18an 20 urte beteko dira Ikurrina legeztatu zenetik. Orduetik hona euskaldun guztiona beharko lukeen ikurraren egoera ez da, ez, beharko lukeena.

Euskaldun guztiona eta Euskal Herri guztian ezaguna eta maitatua den ikurrinaren egoera legalak argi eta garbi adierazten du Euskal Herria beraren egoera politikoa nolakoa den: beti Espainiarekin eta haren hankapean. Gu bakarrik inora ere ez.

Gaur egun Euskal Komunitate Autonomoan bakarrik da legezkoa ikurrina. Nafarroan ez da ofiziala eta askotan irainak jasotzen ditu, debekatua eta kendua izanik udaletxe askotatik. Iparraldean zer esanik ez.

Legezkota den 3 herrialdeetan ere beti piperpotoaren menpe azaldu behar du, menpekotasuna markatuz. Askotan bortxakeria erabiliz kendu izan dute, bortxakeria berberaz jarria izan da bandera espainola, eta askotan Ertzantza (euskalduna?) izan da inposaketa honen egilea (ordenak jarraituz, noski).

Gure ikurrina eta, beraz, Euskal Herria, oraindik urruti daude askatasunetik. Horregatik, zer garen eta zer izan nahi dugun argi gera dadin, Elgoibarko Herri Batasunak dei egiten dizue elgoibartar guztioi urtarrilaren 17, 18 eta 19an gure ikurrina balkoietan jar dezazuen.

GEUREA, IKURRINA

Elgoibarko HB

Gaztetxearen alde

- Elgoibarko Talde Antimilitaristak Gaztetxe baten beharra ikusten du.

- Lokal horrek etekin eta erabilpen soziala izango luke.

- Hainbat informerekin azaldu den bezala, Elgoibarko gazteriak dituen hainbat hutsune beteko dira.

- Honelako aukera baten aurrean akordio positibo batera heltzea animatzen zaituztegu, gazteriaren gehiengoak eskatzen duena beti ere kontuan hartuz*.

*Ikus Siadeco-ren inkestak.

Elgoibarko Talde Antimilitarista

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik.

GALDERAK

Zergatik ez dituzte aurtengo San Bartolomeetan autode-txokerik jarri? Eta San Anton jaietan ere ez?


Kultura dinamizatzailearekin egon gara eta berak esan diguenez, San Bartolome jaietan ezinezkoa izan zen Limousin feria zegoelako eta tokia behar zelako. "Autodetxokeek leku asko okupatzen dute eta ezin dira edozein tokitan jarri". Beste leku batzuk proposatu izan zaizkie baina ez dute onartu izan. San Anton jaietarako, berriz, ez zuten eskaerarik egin, dirudienez Getariako jaietan egoten baitira.

KEXAK

◆ Neskato batek kexa bat plazaratu nahi du. Duela hilabete batzuk Arregitorre ingurua, autopistaren aurreko aldea, oso zikina zegoen eta ea inork ez zuen garbitu behar galdetzen zuen. Oraindik ez ei du inork garbitu eta zikina egoten jarraitzen duela esan digu.

◆ Muguruzako gazte batzuk etorri dira kexa batekin. Esan digutenez, euren auzoko parkean dauden porteria eta saskibaloian jokatzeo saskia norbaitek ibaira bota zituen eta bota ez zituztenak apurtuta daude. Berriak ipintzeko eskatu zuten arren oraindik ez dituzte jarri.

TXALOAK



◆ Hiru urte inguru daramate San Pedroko haur eta gazteek Gabonetan jaiotza biziduna antolatzen. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an izaten da San Pedroko elizan, bai eta garai horretan tokatzen diren jaiegunetan ere. Errege Egunean, gainera, Melxor, Gaspar eta Baltasarren bisita izan zuen jaiotzak. Antolaketa ibiltzen diren haur, gazte eta gurasoei txaloe eman nahi izan diote eta egiten dutena guztiok ikus dezagun, hona hemen argazkia.

BAI, ESAN?



Juan Mari
Andonegi
Filatelia
Elkartekoa

Urtero bezala, eta zigiluak arrazoi nagusi direla, San Antonetako FILATELIA ERKUSKETA antolatu dute Filatelia eta Numismatika Elkartekok. Hori dela eta, **Juan Mari Andonegi** deitu diogu filateliak Elgoibarren duen estimazioaz eta etorkizunaz berba egiteko.

- **Zein egoeratan aurkitzen da filatelia Elgoibarren? Zer da urtean zehar egiten duzuen?** - 85 bazkide gara. Gaur egun Elgoibarren filatelia apur bat estankatua dago, gazteen artean batez ere. Zigiluen prezioaren igoeratik gertatzen da hau. Urtean zehar igandero biltzen gara. Lehen eta hirugarren igandeetan merkatuan agertu diren berrikuntzak jasotzen ditugu eta igandero zigilu sorta bat zozketa-tzen dugu partehartzaile guztien artean. Urtean behin Bilboko Plaza Berrira txangoa egiten dugu. Ekitaldirik garrantzitsuena, ordea, San Antonetan egiten dugun erakusketa da.

- **Urtero egiten duzuen erakusketak zein helburu dauka? Betetzen al dituzue helburuok?** - Erakusketaren helburua filateliak hartzen dituen gai ezberdinak jendetzari orokorrean ezagutaraztea da: fauna, herrialdeak, pertsonaiak, zinea, mendia etab. Helburuak betetzen direla uste dugu.

- **Filateliak gutxi batzuen afizio bitxi bat dirudi. Zein etorkizun ikusten diozu?** - Filatelia-zaletasuna ez da arraroa, ezta gutxi batzuen ere. Espainian bakarrik 1.000 elkarte filatelikotik gora dago. Gainera kontuan izan behar da pertsonaia inportante asko (kultura mundukoak, Erregeak...) filatelia-zaleak direla. Filatelia 150 urte baino zaharragoa da, 1840an lehen zigilua Ingalaterran agertu zenekoa. Gure ustez ziguiluak emititzen diren bitartean, zaletasunak iraun egingo du.

- Kontabilitate

- Lan

- Fiskal



URKIDI

AHOLKULARITZA

A SEGUROAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91



**CRISTALERIA
ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
Obra komertzialak*

Urasandi 12 behe
Tel-Fax: 74 04 89

Oilagorren ehizan txakurra lagun

Umetan hil zuen bere lehen oilagorra. Hura da beretzat inoiz lortu duen trofeorik handiena, etxean nagusitzen dena. Patxi Arriolak 32 urte ditu eta joan den igandean hirugarren aldiz lortu zuen Espainiako oilagorren txapelketa. Patxik begiak eta tiroa jartzen ditu, Datalog, txakurrak, usaimena. Biek ekipo ezin hobea osatzen dute. Telefono eta era guztietako komunikabideetatik ihesi Gelatxoerrot a baserritik atera zen astelehen arratsaldez Patxi, BARREnera bisita egin zigun eta berarekin txapelketaz hitzegiteko aprobeztatu genuen. Zorriak, Patxi!

Sei aldiz egin da Espainiako oilagorren txapelketa. Lehenengo hiru urteetan Juan Mari Esain napparrak irabazi zuen. Baina, orain hiru urte Patxik kendu zion txapela eta aurten hirugarren aldiz jantzi du.

Asturiasen izan da aurten txapelketa, Colunga herriri inguruan kokatzen den El Sueve izeneko erretserban. Patxik ingurunea aurrez bisitatu zuen, zer-non zegoen ikusi eta txapelketa egunean ahalik eta ezuste gutxien izan zitzaizkion, "txapelketa benetan interesatzen bajatzen normalena zonia ezagutzera aurrez jutu da". Ez omen zitzaien gehiegi gustatu erretserba elgoibartarrari, "oso garbixan, zela asko zakan eta nik nahixao dot zuhaitz eta

mendixen artian ibiltzia". Halere, oilagorra ugari zegoen, "berez paraje ona omen da eta aurten gainera zela Europa aldiain hainbeste elur ein daban oilagor asko sartu da kostalde osuan. Txapelketan danera 34 oilagor bota zian". 38 partehartzaile ziren eta Patxik 7 oilagor bota zituen, "normalian bi edo hiru botatzen dia baina aurten suertia egon da eta sekula baino oilagor gehixo bota dia. Oin dala bi urte 5 bakarrik bota zian eta iaz 15".


Epailearen gora-beherak

Goizeko 8:45ean hasi zen txapelketa, "ikusgarrixa izaten da irteeria. Danak batera urtetzen gera, saltaka batian, txakurra lotuta eta bakoitzan jueza atetik". Txakurra lotuta era-

maten dute irteeran bestela horrenbeste jenderen artean galdu egingo litzatekeelako. Partehartzaile bakoitzak epaile bat izendatu eta berarekin eramaten du. Patxirekin, Dani Arenas joaten da baina gero, "han sortea eitzen dabe eta ehiztari bakoitzari beste juez bat tokatzen jako. Eta hor bai daua gora-beheria". Izan ere, epaileek denbora guztian ehiztarien atetik joan behar dute, "euren lana partehartzaileek tranparik eitzen ez dabela kontrolatzia da eta horretarako kazari-xan atetik jun bihar dia denbora guztixan. Ehiztari-xak oilagorra zela botatzen daban ikusi bihar dau juezak. Gainera, azkenian biologo batek oilagorrek errekonozitzen ditxu egunekuak diala konprobatzeko". Gerta daiteke epileak ehiztaria jarraitu ezin izana, "eta kasu horietan denbora asko galtzen da. Aurten tokau jatana nahiko flojo zabilen eta azkenian inoiz baino goizo erretirau nitzan. Juezak berak esaten zian ezin zabala gehixo eta hobe gendula bueltatzia".

10 km. korrika

Dena dela, Patxik hasiera ona eta amaiera ezin hobea izan zuen, "irteeria eman zebenian korrika hasi nitzan eta 10 km. inguru ein nitxun geratu gabe. Aurretik kalkulauta nakan toki batera jun nitzan baina suerte txarra euki naban ze, nahiz eta egun batzuk lehe-



Patxiren lagunak eta senitartekoak beti joaten dira txapelketetara Patxi animatzera.

no oilagor mordo bat egon, txapelketa egunian eguraldi ona zauan eta elurra urtu zanez txorixak goi alde-ra ixo zian eta toki haretan ez zauan ezer”. Halere, irten eta berehala bota zuen lehen oilagorra Patxik, “eta beste seirak ere nahiko azkarrak izan zian. Momentu batian bi elkarrekin altzatu nitxun eta bi tirotan bota nitxun bixak”.

Txapelketaren ondorioak

Txapeldun izateagatik kopaz gain, Asturiasen tipikoak diren Orreo itxurako trofeo bat, eskopeta eta 500 kartutxo jaso ditu Patxik 200.000 pta.rekin batera. Halere, garrantzitsuen txapelketaren ostean datorrena da, “erropa eta material aldetik, marka espeziala erabiltziaz gain dirua eskaintzen dizue. Etxe bat eta beste bat etortzen jatzu eta hor zuk ikusi bihoku zein komeni jatzun gehixen. Gero, Bio Can markako pentzuetarakoak ere kalendarixuak etara ditzue nere eta Dalon fotografiaki...”.

Oilagorretan ezezik ehiza txikian eta basurde-tan ere ibiltzen da Patxi, “desberdina da. Basurdetara lagunartian jun bihar zera eta oilagorretara bakarrik jun zaitxezke”. Argi utzi du Patxik oilagorretan erregea dela. Hirugarren aldiz jantzi du txapela. Datorren urtean laugarrena ekarriko al digu?


Dalo

Patxirekin batera Dalo, txakurra, da protagonista. Usaimena jartzen du txakurak, oilagorraren arrastoa jarraitu eta ehiztariak atzetik jarraitzen dio txoria lokalizatu eta tiroz bota arte. Patxik Dalori gerrian jartzen dizkio txintxarriak, “normalian lepuan eruaten debe baina konturatu nitzan txakurra urruti dauanian hobeto entzuten dabela zure deiza txintxarrixa gerrian badauka ze, lepuan belarrixari traba eitzen dio eta, gainera, denboriakin gorra geratzeko arriskua ere badao”.

Dalo duela 8 urte erosi zuen Patxik Frantzian, “90.000 pta. ordaindu gendun orduan, diru asko zan baina pedigree-za zakan, bere gurasuak kanpeoiak zian eta merezi zaban. Dalokin batera bere arreba ere erosi gendun baina etxe aurrian kotxe batek harripau eta hil ein zan”. Dalo De Talroc, hala da txakurraren izena eta abizena, uste bezala, txapelduna aterra zaie, onen artean onena, eta gaur egun Patxiri txakurra eskatzen diotenean beste batekin gurutzatzeko, “20.000 duro kobratzen ditzut”. Izan ere, oso estimatua da Patxiren txakur txapelduna. Orain gutxi Patxik eta Esainek, aurreko txapeldunak, euren txakurak gurutzatu zituzten eta 8 kume izan dituzte, “batzuk guretzat hartu genitxun eta bestiak 20.000 durotan saldu”.

Dalo arra da eta, dirudienez, badao

eraginik ehiza txakurra arra edo emea izan, “pertonian arabera ere badao, batzuk emia nahixao debe baina gauzia da emia zeluan badao alperrik dala ehizara jutia, txakurra ar bila urtengo da segiduan”. 8 urte ditu Dalok, “ointxe dao edaderik onenian. Hemendik aurrera burua ondo baina hankak hasten dia failatzen. Dana dala, zela zaindu dozun oso inportantia da, zer ematen diozun jateko, nik, esate baterako, pentzua ematen diot, dauan onena da eta beti etaratzen dot mendira. Dalok emateko asko daka oindiok”.




San Anton eguna beherapenetara joateko aprobetxatzen al duzu?



NEREA IRIONDO
21 urte, ikaslea

Ez dakat ohiturarik, igual ama juten bada edo... Baina nik eskolako lanak eitzeke aprobetxatzen dot. Ez da jai egun bat neretzat.



AGUSTIN RUBIO
48 urte, irakaslea

Ez. Jaia dela aprobetxatuz asteburua pasatzera joateko asmoa dugu aurten, Pirinio aldera. Gainontzean, Elgoibarren geratzen gara egun horretan.



M. ANGELES GABILONDO

43 urte, etxekoandrea

Ez, jai egunak etxian ospatzen ditxut eta San Anton beste egun bat bezelakua da neretzat. Ez dakat ohiturarik rebajetara juteko.



M. KARMEN ARIZAGA

52 urte, etxekoandrea

Ez, gainera aurten lana tokatzen jata ze Eibarren eitzen dot lana. Gainontzian San Anton eguna ospatzen dou bazkari berezi batekin edo.



URBANO LOPEZ
40 urte, ajustadorea

Bai, gure etxean Bilbora joaten gara. Emazteari gustatzen zaio eta ni ere gustura ibiltzen naiz. Dendak begiratu eta eguna pasatzen dugu.



M. ISABEL AIZPURUA

44 urte

Ez zaizkit gustatzen rebajak, ahal bada ebitatu egiten ditut baina familian gazteei gustatzen zaie. San Anton egunean mendira joaten gara edo herrian zerbait bada-go ikusi...

**ASESORIA
GO/AR**

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

Beherapenak hasi dira

Urtero bezala sasoi hone-tan dendetan merkealdiak aurkitzen ditugu. Garai aproposa da bezeroarentzat, denboraldiko salgaietan beharapenen irabazia duelako eta saltzailea aurretik saldu ez diren artikuluak ateratzen saiatzen delako; honela, datorren denboraldian jenero berria eskaintzen die bere bezeroei. Aurten azkenean kanpaina honetarako beharapenen data erregulatzen duen Legearekin egin dugu topo. Orain arte beharapenak bakoitzari egoki iruditzen zitzaionean hasi zitezkeen, baina Lege honek dienez negurako beharapenentzako data zehatza urtarilaren zazpia da, hau da, Errege biharamunean. Badira zenbait denda berandua hasten dituztenak, horrela, erregeetako opariak aldatzeko aukera emanez bezeroari. Lege honek dendari txikiari ikaragarriko mesedea egiten dio, denda handiekin konparatuz oso desabantaila handian aurkitzen ginelako. Baina ustekabeen harrapatu gaituzte, denda handi hauek izen berriak erabiltzen hasi direlarik: eskaintzak, urteurrenak, etab. Beharapen berdinak egiteko aprobetxatzen dute, lege honek ez duelarik ezertarako balio.

Beharapenak, bi hilabeteren barruan, nahi adina denbora iraun dezakete. Epe hori errespetatuz denbora aproposa zenbatekoa den ikusi behar du dendariak. Urtarrila, etxeko ekonomia-erentzat hain txarra den hila, dendari gehienentzat beharapenak ipintzeko egokia izaten da. Era berean, kontuan izan behar da pertsona batek bere erosketak beharapenetan egiten baditu, salneurri aldetik baduela aban-

tailik baina gerta dakiok berak nahi duen artikula ez aurkitzea, denak saldu egin direlako edo berritzen ez direlako edo eta saltzaileari ez zaiolako produktu hori beharapenetan jartzea interesatzen.

Beharapenak hiriburuetan

Elgoibarko komertzioari begira eta TXANKAKUA Elkartean aldetik joera argi bat ikusten da, batez ere erropa denden kasuan. Hau da, jendea hiriburuetara joaten dela beharapenetara. Hirietan denda gehiago dagoelako eskaintza ere handiagoa izan daiteke, baina han aurki daitezkeen produktuak herrian ere aurkitzen dira. Elgoibarren daukagun aukera komertziala nahikoa ona da. Herrian egindako eros-



ketetan segurtasun bat dago, hau da, erosten den jeneroa denboraldikoa dela eta kalitate onekoa, eta ez denboraldi honetan ateratzeko aparte ekarritako jeneroa, itxuraz berdina baina kalitatez eskasa...

Elgoibarren gainera beste gai bat daukagu: San Anton eguna. Gure herrian jaiak izanik, askok erosketak kanpoan egiteko aprobetxatzen dute. Honekin gertatzen dena da gure herrian bertan jai giro onean ospatu beharrean herria hutsik geratzen dela. Udalak kontuan hartu beharko luke hau eta jai honi beste ikuspegi berri bat eman, herritar guztiok egun hau jai giroan goza dezagun. **Txankakua Merkatari eta Zerbitzu Elkarte**

iSPI- DEGIRA



*Reme
Serena*

SURYA
belardendakoa

- **Iaz zer egin gabe geratu zinen?** - Uste dut nahikoa denbora dudala nahi dudana egiteko.
- **Eta urte berrirako zein asmo duzu?** - Epe luzera egiten ditut planak eta egunero lantzea gustatzen zait.
- **Urtarrila aldapa gora egiten al zaizu?** - Ez.
- **Egun batez famatu izan nahi zenuke?** - Ez, uste dut arazoak gehiago izango liratekeela pozak baino.
- **Maitasuna eros al daiteke?** - Ez. Maitasuna norberarengandik hasten da, zuk zeure burua maite behar duzu lehenik gero besteei maitasun hori emateko.
- **Zein izen ipiniko zenioke izar bati?** - Surya.
- **Eta zer esan nahi du?** - Eguzkia, sanskritoan.
- **Lasaitzeko onena?** - Neretzako yoga.
- **Zein gozagarri emango zenioke bizitza mingotsa duen bati?** - Entzun egingo nioke, ulertzen saiatu eta maitasun asko eman.
- **Begien hizkuntzan sinesten al duzu?** - Bai, dena esaten dute begiek.
- **Bikoteari barkatuko ez zeniokeena?** - Kontua ez da barkatzea, ulertzea baizik.
- **Naturismoa sorginen kontua al da?** - Ez, naturismoak gorputza erreakzionarazten du gaitz baten aurrean.
- **Txorizo ogitartekoa ala merengezko tarta?** - Txorizo ogitartekoa.
- **Kolorerik gustukoena?** - Horia.
- **Iraultzarik garrantzitsuena?** - Ez naiz iraultzazalea, zerbait lortzeko bakea landu eta igorri behar da.
- **Zer da zoriontasuna?** - Nor bere buruarekin gustura egotea, garenarekin eta ez izan nahi genukeenarekin.
- **Griperik izan al duzu?** - Bai.
- **Eta?** - Gripea berez ez da txarra, bizitzan daramagun erritmoaren aurrean gorputza geratu eta garbitzeko era bat da. Ohean geratu eta limoi-ura edan behar da.

● Beherapenetan erosteko gomendioak

Kontsumo Bulegoko teknikariak hainbat gomendio luzatu nahi ditu beherapenetan ganoraz erosteko. Argi izatea komeni da beherapenetan ezin dela apurtutako arroparik saldu, ezta helburu horretarako eta beherapenak hasi aurretik eskuratutakorik ere. Saldoa, likidazioak eta beherapenak ez direla gauza bera argi izan behar da. Beherapenetan erositakoaren tiketa eskatu. Kalitatea berdina dela ziurtatu, prezio berrira eta aurrekoa zein diren agertzeko eskatu, kreditu txartelak onartu behar dituztela jakin eta azkenik, itzultzeko aukera ematen duten saltokietan erostea komeni dela argi eduki.

● Elgoibartarren aldeko meza Donostian

Donostiako "Elgoibartarren Anaidiak" meza antolatu du elgoibartar hildakoen omenez iganderako, hilak 19. Gogoratuko diren hildakoak Julia Zubiaurre (Julian Zuluagaren alarguna), Valentín Arrieta (Eugenia Ormazabalen alarguna), Miren Zubizarreta (Sebastian Ubiariaren alarguna) eta Maria Unzueta dira. Ohi denez, mezan bildutako dirua Santa Agedako koruen antolatzaileei helaraziko zaie. Meza 12etan izango da San Jose komentuan (Prim kalea, 33).

● Txankakuaren zozketa

Txankakua Merkatarien Elkarteak antolatutako Canarias irltara bidaiaren zozketaren zerbaki saritua 15.075a da. Zerbakia urtariraren 10eko ONCEko

Mendizaleen Federazioaren I. Gala

Euskal Mendizaleen Federazioak Euskal Galaren lehen edizioa egin zuen joan den ostiralean Herriko Antzokian. Federazioaren egoitza Elgoibarren dagoenez, lehendabiziko ekitaldia gure herrian egitea erabaki zen. Ekitaldian, Federazioak argitaratzen duen Pyrenaica sarien banaketa egin zen. Aldizkari honek mendiarekin lotura duten argazkiak saritzen ditu. Horrela, bada, federatuta dauden mendizale guztiek har dezakete parte. Oraingoan sei sari banatu ziren Euskal Herri osoko jendeak aurkeztutako argazkien artean. Segidan I. Galako sari banaketari ekin zitzaion. Hiru ataletan banatu ziren sariak. Lehe-



dena. Bigarren saria federatu kopuru handiena duen taldearentzat izan zen: Gasteizko Club de Montaña. Azkenik, urteko euskal espedizio garrantzitsuenari saria eman zitzaion. Aurtentzen Himalayako Kangchenjunga mendira egindako espedizioari egokitu zaio saria. Espediziokideak Iñurrategi anaiak, Kike de Pablo eta Juanito Oiarzabal izan dira. Argazkian agertzen den bezala, saria jasotzen Alberto eta Felix Iñurrategi anaiak eta Juanito Oiarzabal izan ziren. Ekitaldia amaitzeko Shisha-Pama eta Kangchenjungako espedizioei buruzko ikus-entzunezkoa eman zuten Iñurrategitarrek.



Hiru elgoibartar literatur lehiaketatan sarituak

Joan den astebukaera emankorra izan zen literatur sariei dagokienean. Izan ere, Hasier Etxeberria, Iñigo Otaño eta Unai Villena elgoibartarrek ipuin lehiaketa ezberdinen sariak ekarri dituzte herrira. Hasier Etxeberria idazle ezagunak Zumaiako Julene Azpeitia lehiaketan bigarren saria jaso du "Horazioren bidaiak" lanari esker. Unai Villena ere 2. saria jaso du Eibar Hiria Ipuin lehiaketan, euskarazko ipuinetan

eta 14-17 urte bitartekoan artean. Iñigo Otañok 3. saria jaso du lehiaketa berean baina 18 eta 25 urte bitartekoan artean. Zorionak hiruei!





“Ale-hop”, “Storbais” eta “Fenomeno Catastrófico” Gaztetxean astebukaeran

Joan den larunbatean Zumaiako “Po” eta Azprietiko “Mesias Berriak” taldeen kontzertua izan zen Gaztetxean. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera, “lokala jendez gainezka egon zen eta gure asmoa kontzertuak eta ekintzak egiten jarraitzea da”. Horrela, bada, gaur, osteguna, hilak 16, “Ale-hop” gasteiztarren kontzertua izango da Gaztetxean gaueko 9,30etatik aurrera. Zapatuan, hilak 18, Ermuko bi taldek Gaztetxean joko dute iluntzeko 8etatik aurrera. Taldeak “Storbais” eta “Fenómeno Catastrófico” dira.

Sasioan egoteko bideoa kalean

Udal Kirol Patronatuko zuzendariak, Ramon Mujikak, eta Mutriku, Bergara eta Oreretako kirol teknikariek sasioan egoteko kirol programari buruzko bideoa egin dute. “Sasioan” izenburuarekin kaleratu da eta Kirola Euskaraz programaren barruan kokatzen da. Programa honen helburua kirolaren munduan euskara bultzatzea da. Bideoak 60 minutuko iraupena dauka eta berotze ariketak, erresistentzia eta indarra lantzeko ariketak, flexibilitatea eta lasaitze ariketak agertzen dira. Bideoa Amuebladora Mondragonesak utzitako lokalean grabatu zen eta kanpoko irudiak Urkulun daude hartuta. Bideoa salgai dago 1.500 pta.ren truke edozein liburutegian. Informazio gehiago nahi izanez gero, Kiroldegira deitu (74 44 15).

Bideoaz aparte, Kirola Euskaraz Programaren barruan, hezkuntza fisikoan lizentziatutako Alfredo Cobo eta Aitor Lasak egindako fitxa didaktikoen bilduma ere kaleratu da. Fitxak beroketa, eskubaloia, rugbya eta saskibaloia buruzkoak dira.



● Hauteskundeak Eskola Publikoan

Elkarte Autonomoko ikastetxe publiko guztiek urtarilean egin beharko dituzte Eskola Publikoko hauteskundeak. Orain arte ikastetxe bakoitzak jartzen zituen hauteskundeetarako datak baina Jaurlaritzak hauteskunde datak bateratzeko asmoa du. Elgoibarko Institutuan iaz osatu zen Eskola Kontseilua, hortaz, ez dtute aurten hauteskunderik izango. Datozen bi urteotan, beraz, iaz osatu zen Eskola Kontseiluak indarrean jarraituko du. Herri Eskolan, berriz, oraintxe egin berri dituzte hauteskundeak. Edozein ikastetxetan Eskola Kontseilua honela egon behar da osatua: kideen erdia ikasle eta gurasoak izaten dira; irakasleak heren bat, eta gainontzekoak zuzendaritzakoak, Udal ordezkariak eta irakasleak ez diren langileak. Eskola Kontseiluaren funtzioa hezkuntza proiektua, diseinu kurrikularra eta urteko programazioa onartzea izaten da.

● Club Deportivo-ren zozketa

Elgoibarko Club Deportivo-k egindako Gabonetako bi otarren zozketako zenbakiak atera dira: lehen saria 7941ri dagokio eta bigarrena 9064ri. Bi txartelen jabeak agertu dira. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete elgoibartar guztiei zozketan parte hartzeagatik.

● Guraso Eskola

Ongizate Sailak jakitera eman nahi du Guraso Eskolan izena emateko aukera badagoela oraindik. Klaseak goiez eta arratsaldean izango dira. Izen-ematea 74 10 08an.



Atxutxiamaikaren Gabonak 96

40 haur aritu dira Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Begirale taldeak Udalaren dirulaguntzarekin antolaturiko Gabonak 96 ihardueran. Zortzi egunetan zehar, haurrek hainbat ekintza egiteko aukera izan dute: eskulana, jolasak, Eibarko Gabonetako parkera irteerak, Takolo Pirritx eta Porrotxen emanaldia... Honez aparte, abenduaren 24an beste haur askorekin batera Olentzeroren kalejiran parte hartu zuten. Antolatzaileen hitzetan, “aspertzeko denborarik izan ez dutela ziurta dezakegu. Datorren urteko Gabonetan gehiago”.

● 10 urtez lurperatutakoak

Udal Gobernu Batzordeak abenduaren 23an egindako bileran Olasto hilerrian hamar urtez baino gehiago lurperatuta dauden gorpuak ateratzeko erabakia hartu zuen. Egoera honetan senitartekoren bat dutenek eta gorpuari tratamendu bereziren bat eman nahi diotenen hil honen 25a baino lehenago Gizarte Ongizate Sailarekin harremanetan jarri beharko dira.

● Ibilgailuen gaineko zergak

1997ari dagokion Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea otsailaren 28an amaituko da. Helbideratu gabeko ordainagirik etxera bidaliko bala, hauek ordaintzeko udal bulegoetara jo eta edozein banketxetan ordaindu. Epea pasatu ondoren prozedura exekutiboa hasiko da, ordaindu gabeko agiriei gainkarga ezarriko zaielarik. Ordainketa errazteko ordainagiriak helbideratzea gomendatzen du Udalak. Berri gehiago jasotzeko 74 44 14 telefono zenbakira dei daiteke.

● Ikurriunaren 20. urteurrena

Urtarrilaren 18an 20 urte beteko dira Ikurrina legalizatu zela. Jakin ahal izan dugunez, Elgoibarko Udalak ez du asmorik ekintza berezirik egiteko egun hori dela eta. HBk mozio bat aurkeztu zuen baina, dirudie-nez, ez du aurrera egingo. Halere, Herri Batasunakoek, "herritar guztiek euren etxeko balkoietan ikurrina zintzilikatu dezaten larunbatean, hilak 18" proposatu dute.

Larrialdietarako ambulanzia desager daiteke Elgoibarren

Eusko Jaurlaritzak hartu berri duen erabaki baten arabera, gaur egun dauden ambulanzien kopurua gutxi-tu egingo da eta, ondorioz, Elgoibarko Gurutze Gorriko ambulanzia desageru eta Deba Beheko zentralak Deban eta Ermuan kokatuko dira.

Guillermo Garate alkatearen hitzetan, "Eusko Jaurlaritzak ofizialki ez du ezer jakinarazi gaiari buruz, egunkarian bitartez izan dugu arazoaren berri". 1996ko datuen arabera Gurutze Gorriak guztira 1000 irteera egin zituen arrazoi bat edo beste zela eta. Aurten, berriz, urtarrilaren 13ra bitartean 33 aldiz atera zen ambulanzia. Garateren ustez, "sistema berriak arazoak baino ez ditu ekarriko. Esate baterako Soralezera heltzeko Debatik askoz denbora gehiago beharko da Elgoibarren jarraitzen bado bano. Elgoibar oso ondo dago kokatua edozein tokira iristeko, bai autopistaz bai errepidez, baita Urola aldera ere Azkoitiko errepide berriekin".

Sailburuordearekin bilera
Urtarrilaren lean jarri zen martxan ambulanzien organigrama

berria. Ondorioz, Elgoibarkoaz gain Zumaia eta Hernanik ere eurenak galdu dituzte eta Tolosa eta Ermuak erdira ekarri behar izan dute kopurua.

Gaur egun Gipuzkoan 18 ambulanzia daude egun osoz funtzionatzen dutenak eta aurrera begira enpresa pribatuen zerbitzua gehituko zaie orain daudenei. Eusko Jaurlaritzak eman dituen azalpenen arabera, "kopurua mugatuta ere, zerbitzuaren batz besteko denborak 10 minutukoa izaten jarraitzen du eta, gainera, ambulanzia batzuek ez zuten apenas funtzionatzen". Halere, Guillermo Garatek gaur bertan, hilak 16, bilera bat izan du EUDELeke lokaletan eta bertan sailburuordeari gaia azaldu dio. Alkatearen hitzetan, "arazoa konponduko den esperantza daukagu. Ambulanzia zerbitzua Elgoibarren mantentzen saiatuko gara".



1996an 1.000 irteera inguru egin zituen ambulanziak.



BARREN

O.H.O.ko IKASLEEKIN EGINDAKO 29. GEHIGARRIA



Gabonetako oporrak nahiko urruti dauden arren, gaurkoan orduko irudi bat ekarriko dugu gure artera. Izan ere, urtero bezala aurten ere Pilar ikastetxekoek izugarrizko jaialdia antolatu zuten opor bezperan. Jaialdian ikasle guztiek hartu zuten parte kantuan, dantzan, antzezlanetan... Edozerk balio zuen artista txiki hauek arratsaldea ederki pasatzeko eta euren gurasoen aurrean zeinen gauza politak egiteko gai diren azaltzeko.

Txistea

Gizon batek, zinemara joan eta sarrera-txartela erosten du; handik piska batera itzuli eta beste bat erosten du; eta horrela bospasei aldiz. Azkenean, galdetzen dio txartel-saltzaileak:

- Baina zer zabilta zu? Zertarako erosten duzu hainbeste txartel?
- Hor aretoaren sarreran dagoenak denak apurtzen dizkidalako!!



Jakitunen eskutik

Nola gogoratzen dituzu zure lehenengo pagak?

Igande goizez galtza dotoreak jantzita, txanpon batzuk aldean izanda kalera irtetea ume eta gazte askok dute gogoko. Lehenengo aldiz amak, izebak, amamak edo aitxitxak emandako 5 pta.koak balio ekonomikoko handiegirik ez izan arren, guri izugarritzko handitasuna sortzen zigun. Badirudi txanpon erromes batekin aberastu egiten zarelara. Eta nork kendu hura eskutik?

Oroitzen dut zer-nolako balioa zuen umetan txanpon batzuen jabe izateak. Ez zerbait erosteko beharra nuelako, baina baneukan barruan zerbait hari uko ez egiteko esaten zidana. Ez nuen bereizten txanpon bakoitzaren balioa. Garai haietako aberastasuna kantitatearen arabera zena.

Badugu, bai, txikitatik diruak duen indarraren urruneko ikuspegi bat. Garbi dago zer-nolako eragina duen diruak gure gizartean!

Lagunekin kalera irteten hastean, amak emandako asteroko saria oso garrantzitsua izaten da. Lopezen sartu eta zure sakeletik ateratako txanponekin "Triskis" zorro bat, "Kojak" txupatxus bat edo "Boomer" txikle bat erostea haur askoren astebukaerako guraria izan ohi da. Ez da gauza handia, ez. Hasiera batean sinbolo hutsa izaten da, nagusiek eguneroko beharrei erantzuteko egiten dituzten erosketak antzetzuz.

Urteak joan ahala, pentsatzeko moduak, beharrak aldatu egiten dira eta gure gurasoei igoera eskatzen diegu. Nahiak asetzen hasten gara eta askotan aurreztu ere egiten dugu (norberarentzako esfortzu handia) gustuko dugun hori erosi ahal izateko.



UNAI ARRIETA

Paga oso gauza arduratsua da. Normalean, gurasoak izan arren ematen dutenak, aitona-amonek eta izeba-osabek ere ematen dute zerbait. Orduan, dirua gehituz doa eta dena gastatzeko tentazioa ematen du. Gutxi batzuek dirua gorde ahal izaten dute baina beste askok gozokietan, makinetan nahiz beste edozein gauzatan gastatzen dute. 14 urtetik gora gehiago gastatzen da gauza gehiagotan edo lagunek diru asko dutela ikusita norberak ere gehiago nahi izaten duelako. Gurasoek beti esaten digute eurak gazteak zirenean 10-25 pta.rekin nahikoa zutela baina lehen gauzak askoz merkeagoak ziren. Gaur egun 100 pta.rekin ezin da ezer ere egin. Behar bada gurasoak ez dira konturatzen gaur egun diru gehiago behar dela baina guk ere kontuan izan behar dugu ezin diegula eskatu paga askoz gehiago igotzea, nahiz eta hori izan gustatuko litzaigukeena.



NAIARA MARTIN

Zer iritzi daukazutelebistako lehiaketeki buruz?



"Oso ondo daudela, dirua irabazi, lotza kendu eta beste toki batzuetako jendea eragutzen duzulako."

NAGORE LUECHES. 9 urte



"Lehiaketa batzuk ezotea oso ondo iruditzen zait baina gehiegi daudela diot. Nire lehiaketa favoritua Triskola da."

GAIZKA ETXANIZ. 11 urte



"Barreariak direnak gustatzen zaizkit, beste batzuk lotzeariak dira."

CRISTINA MONTERO. 7 urte



Idan Oygke
11 wt vg

Galde debalde

- 1- Dutxa ala bainoa?
- 2- Jaso nahi zenukeen oparia?
- 3- Zenbat urte bizi nahi zenuke?
- 4- Zer egiten duzu jolasorduan?
- 5- Ba al daukazu posterrik gelan?
- 6- Idazten al duzu diariorik?
- 7- Esnea hutsik ala Cola-Caorekin?
- 8- Artista izan nahi al zenuke?

1. Dutxa berua nahixao dot.
2. Reebok zapatilak.
3. 100 gitxienez.
4. Lagunekin futbolian jolastu.
5. Bai, Julen Guerrero, Etxeberria, Stoikov...
6. Ez.
7. Hutsik.
8. Ez. Eskubaloiko jokalarixa izan nahi dot.



Miko Mwiglic
6 wt vg

1. Bainua espuma mordo batekin!
2. Filako patinak.
3. 8, nere ahizpa Maitek bezela.
4. Saskibaloian jolastu.
5. Bai, Banbin haundi bat.
6. Oindiok ez dakit ondo idazten.
7. Cola-Caorekin, txokolatia dakalako.
8. Bai, pailazua edo, jendiari barria etartzeko.

Zer da... *poza*?

RUBEN JESUS VAZQUEZ 6 wt vg



Eguzkia ateratzea.

OIER ONEDERDA 10 wt vg



Alaitasunak erakartzen duena. Zorionak poza ematen du, zortea duzunean edo partidua irabazterakoan.

JANIS VALLEJO 8 wt vg



Telebistan agertzea, famatua eta diruduna izatea...

ANGEL QUINTANA 13 wt vg



Pertsona batzuek daukatena nobixua lortzen dutenean.

MIDEN BELZA 10 wt vg



Gorputz barruan sentitzen duzun mugimendua. Alai zaudenean sortzen da.

IZASKUN MOREDA 13 wt vg



Neretzako loteria tokatzea izango litzake poza.

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da idazle hau?



2. Zer galdetu diegu?



**MARIA
ARRIETA**

7 urte

"Nere amaxori erosiko nion sorpresa haundi bat: 'you and you' kolonia eta

eraztun bat. Neratzako BARRENen dauan bezelako ordenadore haundi bat erosiko naban eta beste guztia itxulapikuan sartuko naban, haundixa naizenian andereino izan nahi dot ikasteko dirua eukitzeko"

INIGO IRAZABALBEITIA

11 urte

"Nik dana gastauko naban futbol partiduak ikusteko sarrerak erosten. Gainera, haundixa naizenian futbolista izan nahi dot eta jokalarixen taktikak ikusi eta ikasiko nitxuzke hola".



ERANTZUNAK: 1.- Bernardo Atxaga 2.- Zer egingo zenuke milioi bat tokatuz gero?

Artisten txokoa

SAN ANTON

San Antonen bizitza ikasi ondoren zuentzako bertso bat ari gara idazten benetan ona zela jakin dezaguen ta abereak zaintzen ere aritzen zen. Honen omenez jaia da hemen ospatzen (Bis)

Egiptoko herrian jaio den gizona sakrifizio ugari bizi zituena hilobi ilun baten bizitzaren esona monasteji ugari ireki zuena hirugarren mendean jaio zen pertsona. (Bis)



SAN ANTON

Pilar ikastetxeko ikasleak

Bilbotarra da izatez. Inñaki Unzagak 38 urte ditu eta ekonomia ikasi zuen. Halere, 1990. urtean Mendaroko ospitalea eraiki zenetik bertan dihardu, berak esaten duen bezala, "guk ireki genituen ateak". Gaur egun ospitaleko gerentea da eta erronkarik handiena, "estabilitatea lortu duen ospitalearen kalitatea areagotzea da".

INÑAKI UNZAGA

"Mendarokoa ospitale modernoa da"

- Duela 6 urte jaio zen Mendaroko ospitalea.

- Bai. Hasierako bi urteak izan ziren kritikoek ekipamenduak, makinaria, profesionalak, guztia ekarri behar izan zen... Nolanahi ere, zerbitzuak poliki-poliki jarri genituen martxan, gauzak ezin dira gauetik egunera normalizatu.

- Gauzak dexente aldatu dira, beraz.

- Dударik gabe. Elgoibar eta Mendaro bera ere asko aldatu dira. Izugarria da Mendarok, esate baterako, azken 6 urteotan egin duen eztanda: industrialdea, Ikastola.. Herriak duen bilakaera naturalaren parekoa izan da ospitalearena. Poliki-poliki hazten joan gara, eta hazten goaz.

- Halere, nahikoa kontsolidatuak zaudete.

- Bai, zalantzarik gabe. Hasiera batean jendeak dituen zalantza eta kezkek erabat desagertu direla esan dezakegu. Normala da jendeak berria den edozein gauzaren aurrean nolabaiteko mesfidantza izatea, baina denborarekin erakutsi dugu benetako profesionalak daudela eta horren adibiderik garbiena, urtero izaten ditugun 100.000 kontsulta eta 19.000 urgentiak ikustea besterik ez dago.

- Zein da Mendaroko ospitalearen ezaugarri nagusia?

- Baliabide handiak dituen ospitale txikia da, profesional oso onak dituen eta modernoa.

- Ba al dago espezialitaterik?

- Ospitale txikia da baina prestazio handiak ditu. Laupabost espezialitate inguru daude hemen lantzen ez ditugunak: neurozirujia, bihotzeko zirujia, nefrologia (giltzurruneko espezialitate)... baina, kasu guztien %3a baino ez dira izaten.

- Berrikuntzarik izan al duzue aspaldian?

- Hasi ginenetik saiatu izan gara teknologia berri eta aurreratuenak erabiltzen. Esate baterako, lehenengoak izan ginen Gipuzkoan laparoskopio teknika erabiltzen 1993an eta gauza bera anestesia epiduralari dagokionean.

- Aurrera begira, zein da erronka?

- Hasieran, azpiegitura egonkorra martxan jartzea eta kalitate ahalik eta altuena lortzea ziren eman beharreko pausoak. Gaur egun, kalitatea badagoela gauza nabarmena da. Hemendik aurrera hirugarren fase batean sartzen gara, aurrez dagoena are gehiago hobetuz. Teknika berriak sartzen hasi behar dugu jendearentzat ahalik eta eraso gutxien egiten dutenak, gaixoek ospitalean ahalik eta denborarik gutxien eman dezaten.

- Urtea gripeak jota hasi da.

- Bai, hala da. Momentu honetan ospitalea gainezka dago. Urtero azaroa eta otsailean gripe epidemia egoten da eta aurten badirudi lehenengoa luzatu eta bigarrenarekin topo egingo duela.

BESTEAK ESANA

"Mendaro bezalako ospitale baten buru izatea ahalbidetzen dio bere exijentzia maila altuak"
S. CABALLERO



Adi irakurle!

ELGOIBARKO GAITZIZENAK EZAGUTU NAHI DITUGU!!!

Laister batean atal berri batekin hastea nahi dugu txoko honetan. Gure asmoa bertan Elgoibarko goitizen edo gaitzizenak biltzea da, aste bakoitzean bat aztertuz. Hau da, nondik datorren horrela deitzeko ohitura, nori deitzen dioten izen horrekin, zergatik, etab.

Atal hau irakurleen esku dago, hortaz, zuen laguntza behar-beharrezkoa zaigu. Zure goitizena edo ezagutzen duzun beste edozeinen nondik-norakoak emateko BARREnera etorri edo 74 41 12 telefono zenbakira deitu. Benetan eskertuko dizugu.

G O G O R A T U Z

Vicenta Urrutia Andoaga (1912-1948)



- 1912ko uztailaren 25ean jaio zen Aretxabaletako Goroeta baserrian.
- 9 anai-arrebatik bigarrena zen.
- Ikasketak egiteko aukera handirik gabe, oso gazterik etorri zen Elgoibarko Sebastian Irustaneko etxera, ume zaintzera.
- Gazterik Justo Galdosekin ezkondu zen eta 6 seme-alaba eduki zituzten.
- Lan mordoa egin zuen familia aurrera ateratzeko, batez ere Santa Klarako erreka ertzean erropak garbitzen.
- Geroago Sigmako tailerlean lan egin zuen, ("emakume honek bai korajia") eta familia aurrera ateratzea lortu zuen.
- Santa Klara kalean bizi izan beti.
- Oso ezaguna zen herrian. Pertsona alaia, irrifartsu beti.
- Bere sinesmenean, debozio handia zion Karmengo Amabirjinari.
- Gogokoak zituen erropak jostea eta euskal abestiak.
- 1948ko maiatzaren 25ean hil zen 36 urte zituela.

Juanito Gorostiza



Nafarroa enparantza, 2
ELGOIBAR

MATRIKULA ZABALIK! ANIMA ZAITEZ!

- Matrikula epea: Urtarrilaren 20tik otsailaren 7ra.
- Maila guztiak. LANGABETU ETA IKASLEENTZAT PREZIO BEREZIAK. Beka sistema.
- Informa zaituz 74 27 31 telefonora deituz.



Goki eReformak, s.l.


DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK

FATXADAK ETA TEILATUAK

OBRAK OROKORREAN

KAROBI PUB



Tel. 74 06 37
San Frantzisko, 37



Angel Mari Arriagak 1972ko erretratu hau ekarri digu. Eliza osteko parkean aterata dago, Zazpiak Bat kuadrilakoak Bizkaiko kostaldera ibilaldia egin zuten egun batean. Kuadrilak urtero egiten zuen eskursioren bat, eta honakoa egin zuten bigarrena izango da ziurrenik.

Bertan ageri direnak, ezkerretik hasita atzeko ilaran: **Victor Olaberria txoferra, Alex Argarate, Agustin Canales, Juan Manuel Zubiaurre, Jose Luis Bastida eta Patxi Garzia.**

Bigarren ilaran: **Ignacio Izagirre, Paco Gurrutxaga, Migel Angel Mujika, Enrike Loiola, Luis Arakistain, Teodoro San Martin eta Juan M. Osoro.**

Hirugarren ilaran: **Ixidor Solupe, Jesus M. Aizpurua, Angel M. Arriaga, Alberto Ajuria, Jose M. Etxaniz, Angel Agirregomezkorta, Alfonso Leon, Fernando Zubiaurre (*), Jose Antonio Alberdi, Rufino Eizagirre eta Agustin Rubio.**

Laugarren ilaran: **Jose Luis Arriola, Imanol Solupe, Jose Antonio Gonzalez, Isidro Valenciano, Jose Urain, Jesus M. Etxaniz eta Juan Manuel San Martin.**

Argazkian falta direnak baina kuadrilakoak direnak: **Juan Jose Lacambra "El Maño", Jose Ignacio Laskurain, Julian Mujika eta Jose Angel Zubiaurre.**

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

Cordon, Vilarchao, c.b.
DEKORAZIOA
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 behea. Tel.74 28 74 - 74 05 70

ORAIKO
San Franzisko 25
ELGOIBAR



“Atletismoa uzteko erabakia hartu dut”



Oscar Calvo

- **Adina:** 17
- **Asteko egun bat:**
Ostirala
- **Fikziozko pertsonaia bat:**
Superman
- **Telebistako programa bat:**
Dokumentalak
- **Janari gogokoena:** Pizza

– **Zer moduz azken denboraldia?** - Azken hiru denboraldiak bezala hesietan jardun dut. Jubeniletako azken urtean 330 metro hesiak egiten dira, nik joan den denboraldian egin nuen.

– **Pista estalian, ordea, 60 metro hesiak egiten dira.** - Bai, hala da. Euskadiko txapelkun geratu nintzen eta Espainiako txapelketarako marka lortu nuen. Espainiakora joateko lehen 24 markarik onenak hartzen dira aintzat. Nik 9:30ko marka nuen. Txapelketan ez nuen ezer lortu nire espezialitatea 330 m. hesiak direlako.

– **Aire librean zer moduz?** - Gipuzkoako Txapelketa irabazi egin nuen baina ez nuen markarik lortu. Tolosan lasterketa mordo bat korritu nituen eta han egin nuen gutxienezko denbora, 44:20. Euskadiko txapelketa irabazi nuen eta ondoren Espainiakoan zazpigarren geratu nintzen. Final hobia egin izango nukeen nerbioak kontrolatu izan banitu.

– **Gutxiago korritzen al da nerbio egozko?** - Nerbioekin giharreak gogortu egiten zaizkizu eta lasterketa txukun bat egiteko gorputza erlajatuta egon behar da.

– **Zu zabiltzan mailan aurrera egiteko, zer?** - Afizionatuetatik pro-

fesionalera pasatzea kasik ezinezkoa da. Askok utzi egiten dute nire adinean baina atletismoa benetan gustatzen bazaizu, nire ustez, oso balakoa da afizionatu bezala jarraitzea.

– **Zure mailan “ona izatea” zer da?** - Aurten 400 metro hesietan arituko naiz aire librean. Momentuz, ordea, pista estalian ari naiz, luzera jautsian. 400 metrotan, adibidez, ona izateko 50 segundoko denbora eduki beharko litzateke.

– **Eta zure marka?** - 54 segundo edo hortik gorakoa.

– **Hain da zaila segundo bat jaitea?** - Oso. Horretarako buru-belarri aritu eta askoz gehiago entrenatu behar da.

– **Zure kasuan?** - Egia esan, atletismoak ez nau guztiz betetzen. Gainera aurten selektibitatea daukat eta aspalditik nago uztekoan. Ez dakit noiz baina atletismoa lagatzeko erabakia hartuta daukat.

– **Penarik?** - Ingurukoek esaten didate jarraitu egin beharko nukeela baina nik argi daukat ezetz.

– **Ba al dago betetzen zaituen kirolik?** - Ez. Horregatik jarraitu izan dut hainbeste urtez atletismoan, ordezkorik topatu ez dudalako. Gustatzen zaidan kirola, hala dei badiezaioteko, patinatzea da.

ESKOLARTEKO JOKOAK

EMAITZAK

SASKIBALOIA

- **Alebin neskak** ■
Ikas Trumoi 4 - Ikas BEder 36
Ikas Laino 8 - Ikas Sei 42
Mendaro C 30 - Pilar Mix
Herri Women's 10 - Pilar S. Girls 18
- **Infantil mutilak** ■
Ikas Urdin 26 - Ikas Txuri 3
Ikas Amantis 12 - Ipurterreak 6
Herri Milan 2 - Ikas Pirri 0
Pilar Boys 2 - Pilar Inter 0
- **Infantil neskak** ■
Gremlins 18 - Ikas Beltz 22
Peña Insti 22 - Ikas Katxondak

AGENDA (Urtarrilak 18, larunbata)

2

Pilar Girls 12 - Pilar MAnches-ter 10

ESKUBALOIA

- **Benjamin mutilak (Kiroldegian)** ■
10,30 Pilar Lakasitos - Ikas Zirt
11,00 Pilar Flash - Ikas Txut
11,30 Mendaro A1 - Ikas Kiroi
12,00 Mendaro A2 - Ikas Mazarro
- **Benjamin neskak (Kiroldegian)** ■
9,00 Ikas Izar - Ikas Zart
9,30 Mendaro B - Pilar Usoak
10,00 Urasandi - Pilar Kas

SASKIBALOIA

- **Alebin mutilak (Urasandin)** ■
9,00 Ikas Eguzki - Ikas Otsokoa
9,45 Ikas Ilargi - Ikas Axelkoak
10,30 Mendaro D - Pilar All Star
11,15 Herri Manchester - Pilar S. German
12,00 Herri Boomerang - Pilar Ajax

San Anton txapelketako finalak jokatu

dira, bihar, hilak 17

Karmel Leonek finalerako txartela lortu zuen joan den ostiralean

Bihar, hilak 17, San Anton eguna, Lagunak Pilota Eskolakoek antolatutako San Antonetako VI. Pilota Txapelketaren finalak jokatu dira. Hiru kategoriatan egongo dira, jubenilak, afizionatuak eta nagusiak. Partiduak bihar, gaueko 22,00etan hasiko dira Ikastolako frontoian.

Joan den ostiraleko finalerdietan Ikastolako frontoian bildu zen jendetzaren aurrean, jubenilen kategorian, Karmel Leon elgoibartarrak finalerako pasea lortu zuen. Leon eta Sukiak 22 eta 17 irabazi zieten Ubera II eta Antxiari. Azken bi hauek gogor hasi baziren ere, azkenean elgoibartarrek nagusitzea lortu zuten. Markagailua 14 eta 7 egon zen une batean elgoibartarren aurka baina Leon eta Sukiak garaiz erreakzionatzen jakin zuten. Hortaz, bihar, hilak



Ekzerretik hasita 3.a da karmel Leon. ostiralean finala jokatu du.

17, gaueko 10etatik aurrera Ikastolako frontoian txapelaren bila arituko dira. Elgoibartarren arerioak Etxaniz azkoitarrak eta Elola izango dira. Beraz, final interesgarria izateko esperantza dute antolatzaileek. San Anton txapelketan elgoibartar batek finalera heltzea lortzen duen lehen aldia da honako hau.

Afizionatuetan, berriz, Berasaluze VII.a eta Zearra nagusitu ziren Berraondo eta Galarzaren kontra. Emaiza 22 eta 13koa izan zen. Hauen finala ere, ostiralean, gaueko 10etan jokatu da Ikastolako frontoian. Finalean Otaegi eta Okinena izango dituzte aurrez aurre.

K I R O L A L B I S T E A K

● Masaia eta sauna zerbitzuak martxan

Udal Kiroldagiko zerbitzua martxan dago hilaren 13tik. Ordutegia honako hau da: astelehenean ostiralera bitartean goizeko 9etatik 12ak arte eta arratsaldeko 4etatik 8ak arte. Aurrez ordua hartu nahi izanez gero, ordutegia goizeko 8etatik gaueko 9etara bitartean luzatzen da. Bestalde, orain arte arratsaldez bakarrik eta asteburuetan funtzionatzen zuen sauna zerbitzua, asteazken goizetan irekita egongo da. Goizeko ordutegian jendeak zer-nola erantzuten duen ikusi nahi du Kiroldagiko zuzendaritzak, harrena ona bada, goizez ere irekitzeko.

● Morkaikoren Batzar Orokorra

Morkaiko Mendizale Elkarteak datorren ostiralean, hilak 24, urteko Batzar Orokorra egingo du. Batzarra Kultur Etxean izango da arratsaldeko 8etan eta 1996. urteko balantze ekonomikoa, eginiko lanaren aurkezpena eta zuzendaritza berriaren aukeraketa izango dira gaiak.

Bestalde, Morkaikok jakinarazi duenez, aurtengo federatu karnetak iritsi dira. Jasotzeko elkarteak Errosario kalean duen egoitzatik pasatu behar da ostiralean arratsaldeko 7,30etatik aurrera edo larunbat goizean 11etatik aurrera.

E M A I T Z A K

Futbola

Segura 1 - Elgoibar 1 (1. erreg.)
Haundi 4 - Balmaseda 1
Lagun Onak 1 - Elgoibar 1 (2. jubenilak)
Elgoibar 11 - Almen 0 (Neskak)
Elgoibar 4 - Hernani 0 (Oho. kadeteak)
R. Sociedad 3 - Elgoibar 1 (Infantilak)
Urki 3 - Pedrusko 1
Elgoibar 4 - Bergara 1 (Oho. jubenilak)

Saskibaloia

Oñati 61 - Elgoibar 52

Eskubaloia

Usurbil 5 - Unceta Elg. 13 (Kad. neskak)
Leizaran 20 - Pagoaga Elg. 22 (Jub. nesk.)
Tecnomeca Elg. 27 - Don Bosco 17 (Jub. mut.)
Legazpia 21 - Hyundai 16 (Seniorrak)

Futbitoia

Menis 4 - S. Braga 3
SANroketarrak 5 - B. Los Herminios 4
Sorpresa 1 - Maser 4
Ikus Optika 1 - PSK 6
Zazpi 5 - S. Pitxote 0

Areto futbola

Elgoibar 1 - Guby 5 (1. maila)
Elgoibar 3 - J. Puerto Pasajes 0 (Atunmikoa)

A G E N D A

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 18
10:00 Eibar - Antoniano (Kadeteak)
12:00 Elgoibar - Urki A (2. jubenilak)
13:45 Gazteak - Zarautz (2. erregionala)
15:30 Elgoibar - Añorga (Oho. kadeteak)
17:15 Elgoibar - Miren Bihotza (1. erreg.)
19:00 Eibartarrak - Zumaiako (2. jub.)
Igandea, 19
9:00 Beti Sutan - Mutriku (2. erreg.)
10:45 Eibartarrak - T. La Amistad (Neskak)
12:30 Elgoibar - Ordizia (Oho. infantilak)
14:30 Gazteak - Antzuola (2. jubenilak)
16:30 Pedrusko - Eibartarrak

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 18
16:00 Unceta Elg. - Bergara (Kad. nesk.)

Erremintariei eskainitako erakusketa filatelikoa San Antonetako ekintzarik nabarmenena izango da

Elgoibarko Filatelia Elkarteak San Antonetako jaietan urtero antolatzen duen erakusketa egingo du ostiralean, hilak 17, hasita, hilaren 26ra bitartean. XVII. edizioa da aurtengoa, erremintariei buruzkoa. Erakusketa Kultur Etxeko erakusgelan izango da.

Urtero bezala, erakusketaz aparte, mataseilu berezia aterako dute filatelikoek honako egun hauetan: hilak 17, 18 eta 19. Interesa duten guztiek postaz bidali behar dituzten eskutitz etabei Kultur Etxean kokatuko den behin-behineko Posta Bulegoan eman ahal izango diote estanzazioa. Mataseilu berezia lortzeko Correas-eko Zuzendaritza Nagusiari baimena eskatu diote Filatelia Elkarteak. Aurtengo mataseilua desa-



Hilaren 17, 18 eta 19an mataseilu hau emango dute Kultur Etxean.

gertutako erremintarien lanbideari buruzkoa izango da.

Erakusketan Estatuko leku ezberdinetako filatelikoen bildumak egongo dira ikusgai. Ziguiletan agertzen diren gaiak anitzak dira: pintura koadroak, Portugal,

arte bisigotikoa, San Ignacio, bizarra duten pertsonaiak, Holanda, kirol ezberdinak mendian, Euskadiko etxe filatelikoak, etab. Haez gain, gaztetxoek bildumak ere izango dira: arrainak eta fauna, Gabonak munduan, hegaztiak,

txakurrak, etab.

Erakusketaren aurkezpena

Larunbatean, hilak 18, erakusketaren aurkezpena egingo da eta bildumen jabeek opariak banatuko zaizkie. Ekitaldia eguerdiko 12etan hasiko da. Ondoren lagunarteko bazkaria egingo dute Baltasar elkarteak. Arratsaldeko 4,30etan, ohi dutenez, Filatelia Federazioaren ezohiko batzarra izango da Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Gabonetako loteria

Filatelia Elkarteak Gabonetako loteriaren 00443 zenbakiaren partizipazioak saldu zituen. Elkarteak jakinarazi nahi du 1.000 pta.ko saria jaso duela partizipazio bakoitzak. Partizipazioaren trukea Euskadiko Kutxa-Caja Laboraleko egoitzan egin daiteke.

382.629 pta. jaso ziren Errosarioko Amabirjinaren diru-bilketan

Errosarioko Amabirjinaren Batzordeak irudiaren konponketak egiteko diru-bilketaren balantze ekonomikoaren berri eman digu. Balantzea "positiboa" izan da, bildutako diru kopurua 382.629 pta.koa izan baita eta gastuak, berriz, 223.481. pta.koak. Diferentzia edo irabaziak, 159.148 pta.koak izan dira. Sarrerarik inportanteena Eibarko Pablo Morenok emandako 200.000 pta.k izan dira. Gizon honek debozio handia omen dio Socorroko eta Errosarioko Amabirjinei eta emaztea gaitortuta duenez, donazio hau egin nahi izan du. Bigarren diru sarrera garrantzitsuen herritarrek emandako dirutza da: 147.629 pta. Gastu inportanteena, berriz, Amabirjina kon-

pontzeko ordaindu diren 150.000 pta.k izan dira. Batzordeak dirua eman duten guztiei eskerrak eman nahi dizkie eta jakitera eman nahi du abenduaren 18an libreta bat ireki zuela Kutxa Errosarioko Amabirjinaren izenean, jasotako dirua gordetzeko.



DIRU KONTUAK

■ GASTUAK . . . (223.481 pta.)
■ Irudiaren konponketa . . . 150.000
■ Besoaren konponketa 5.000
■ Elektrizitatea 21.000
■ Pintura 18.560
■ Loreak eta ontziak 13.850
■ Aroztegia 5.220
■ Haurraren koroa 3.851
■ Bideoa 6.000
■ SARRERAK . . . (382.629 pta.)
■ Pablo Morenoren donazioa . . 200.000
■ Herritarren donazioak . . . 147.629
■ Udala 25.000
■ Kutxa 10.000

ARKITEKTURA

MARRAZKIAREN ERRESUMA



ARKITEKTURA

► BATXILERGO MODALITATEA

- Zientifiko-Teknikoa (Mate II eta Fisika):
- Natur eta Osasun Zientziak
- Batxiler Teknologikoa

► UNIBERTSITATEAK ETA IAZ ESKATZEN ZEN NOTA

- Madrilako Europarra
- Nafarroako Pribatua
- Granada (7,9)
- A Coruña (6,7)
- Las Palmas (6,5)
- EHU (Donostia) (6,9)
- Kataluniako Politeknikoa (7,7)
- Madrilako Politeknikoa (8,4)
- Valentziako Politeknikoa (6,8)
- Sevilla (6,8)
- Valladolid (7,2)

► IKASGAI BATZUK

- Irudigintza
- Geometria deskribatzailea
- Arkitektura
- Eraikuntza
- Fisika
- Matematika
- Proiektuak
- Ekonomia
- Estetika

► IRTENBIDEAK:

- Arkitekto teknikoak lanbidean modu librean aritu edo inmobiliaria zein enpresa publiko edo pribatuetan lan egin dezake. Gehienak eraikuntza, administrazio publiko eta irakaskuntzan daude. Langabezia handirik ez du beste arlo batzurekin konparatuz gero eta badirudi lanak gora egingo duela.
- Goi mailako arkitektoek proiektuak egiten dituzte, dekorazioa, grafismoa eta enpresa pribatuetan eta publikoetan aritu daitezke: udaletxeak, aldundiak, Telefonika, CAMPSA...

Aste honetan atal berri bati ekingo diogu Gaztaroa Aro Eroan. Hilean behin ikasketa ezberdin batzuk landuko ditugu, irakurleek horien berri izan dezaten. Horretarako, gaur egun karrera jakin bat egiten ari den ikasleekin hitzegino dugu. Hasi, Arkitekturarekin hasiko gara.

Jon Bastidak 22 urte ditu eta arkitektura ikasten ari da Donostian.

– Bokazioa al duzu arkitektura?

- Hasieran ez nakan garbi baina beti gustatu izan zaizkit etxiak-eta dibujatzia. Azkenian arkitekturaren sartzia erabaki naban eta asmatu ein nabala usten dot.

– Zer da arkitektura?

- Artia da baina konprometitxuaua. Estetika lantzia gain, eraikuntza aldetik gizartiak ditzun biharrei erantzuna eman bihar diona. Arkitektuak diseinua eitzen dau, tokian arabera proiektua eta prespuetua etara.

– Ez al da zaila arkitekturaren sartzea?

- Nere garaian 6,4 eskatzen zebe media, baina oin usten dot 7txik gora. Gero eta zaila da. Pazientzia euki bihar da ze, 6 urteko karrera hau etaratzeko media 10 urte dia.

– Teoria ezezik praktika ere izango duzue, ez?

- Bai, asignatura teknikuatan fisika, mate, estrukturak eta holakuak ikasten ditzugu, eraikuntza ez jausteko. Bestetik, asignatura artistikuauak daude,

arte, dibujo, proiektuak... Hasieran teoria da gehixoa baina gero asignatura guztixetan bialtzen dizue proiektuak eitxia. Lanak eta lanak. Eta danian marrazkixa sartzen da eta dibujatzen badakizu bentaja haundixa dakazu. Azken finian, arkitekto baten hizkuntza dibujoa da.

– Eta zein eratako proiektuak egiten dituzue?

- Danetik, etxe bat izan laike, eskailera bat.... Iaz, 4. mailakuei esan zieten Elgoibarko Giza Eskubideen parkeari buruzko proiektua eitxeko. Herrian ibili zian ikasle mordo bat argazki kamarak hartu eta erretratuak etaraten.

– Gustatzen al zaizkizu Moneoren kuboak?

- Bai, hori da gaur egungo arkitektura. Lehengo edifizua, oin ikusten ditzugun katedral gotikuak eta, bere garaian punteruak izan zian, azkenengo teknologixiakin ein zitxuen eta garai hartan jendiari ez jakozen gustatzen, orduan estilo modernua zan!

– Ikuspuntu futurista izan beharko duzue.


- Baietz esan laike. Arkitekto bat konsziente izan bihar da bere eraikuntzak etorkizunian ere iraun bihar dabala. Halere, Donostiako fakultadia nahiko obsoletua dao. Esate baterako, ondiok ez dabe eraikusten ordenadoriak dibujatzen eta gaur egun hori biharrezkua da. Zure kontura ikasi bihar dozu.

– “Deformazio profesionala” ba al daukazu?

- Bai. Maixu batek esan zuan gu gerala kalian dixen jendian artian gorutz begira dixezen bakarrak.

– Gustura, beraz.

- Oso gustura. Imajina ziaua ere asko erabili bihar da eta asko zabaltzen jatzu. Datorren urtian Milanera jutia gustauko litzaidake Erasmus programa batekin. Italia arkitektura aldetik beti izan da oso aberatsa. Eliziak han euki dau entriua eta jendia inpresionatzeko arma bezela erabiltzen zebe arkitektura, Jaungoikoaren boterea. Eraikuntza ikusgarriak ein zitxuen.



INTERESE-

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 461111
 Txanda hartzeko 743354
 Planning-a 742950
 Alkoholiko Anonimoak 740385
 D.Y.A (anbulantzia) . . 464622
 Gurutze Gorria . . . 743864
 Mendaroko Ospitalea. 756264
 Odol Emaileak . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 744366
 Udal Kirol Patronatua
 744415
 Kultura Zerbitzua . 742158
 Mendaroko Udala. 756100
 Ongizate zerbitzua 741008
 Udaletxea. 741050
 Udaltzaingoa 741394

BESTELAKOAK

Caritas 740142
 Elgoibarko Izarra . 741626
 Kiroldegia 74 4415
 Kontsumo Bulegoa 743088
 Liburutegia 743525
 Musika Eskola . . . 742145
 Mintxeta 744315
 Parrokia 740842
 Postetxea 741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza 740296
 Zaharren Biltokia . 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 74 21 41
 Herri Eskola 74 08 79
 I.M.H. 74 41 32
 Institutua. 74 02 67
 Ikastola. 74 44 41
 L.H.I. 74 44 80
 Pilar Ikastetxea. . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN. 74 41 12
 El Diario Vasco . 74 40 73
 El Correo Español 74 10 82
 Egin 10 84 21

16
osteguna

**9,30 ROCK
KONTZERTUA**
 "Ale-Hop"
 Gaztetxean

22,15 ZINE KLUBA
 "Chungkin Express"
 Antolatzailea: Ongarri
 Zine Kluba

17
ostirala

San Anton
Eguna

11,00 MEZA NAGUSIA
 Parrokian

**11,00 HAURREN-
TZAKO PARKEA**
 Plaza Handian
 (Euria eginez gero
 Kiroldegian)

**12,00 FILATELIA
ERAKUSKETA**
 Gaia: Erremintariak
 Kultur Etxean
 Hilaren 26ra arte

**16,30 BURUHANDI
ETA ERRALDOIEN
KALEJIRA**

**16,30 HAURREN-
TZAKO PARKEA**
 Plaza Handian

**22,00 PILOTA
TXAPELKETA**
 Ikastolako frontoian
 Antolatzailea: Lagunak
 Pilota Eskola

22,30 ANTZERKIA
 Lana: Florido Pensil
 Antzeztaldea: Tanttaka
 Herriko Antzokian

18
larunbata

**11,00 ZAZPIKI
IRRATIAREN BILERA**
 Ganbaran

**12,00 FILATELIA
ERAKUSKETAREN
AURKEZPENA**
 Kultur Etxean

**16,30 FILATELIA
FEDERAZIOAREN
BILERA**
 Kultur Etxean

19,30-22,15 ZINEA
 "Beautiful girls"

**20,00 ROCK
KONTZERTUA**
 Taldeak: "Storbais"
 eta "Fenómeno
 Catastrófico"
 Gaztetxean

19
igandea

16,30-ZINEA
 "Aquí llega Condemor"

19,30-22,15 ZINEA
 "Beautiful girls"

20
astelehena

**18,00 GRABATU
IKASTAROA**
 Egurren egoitzan

22,15 ZINEA
 "Beautiful girls"

21
asteartea

**Arratsaldean,
ERRETZEN UZTEKO
IKASTAROA**
 Kultur Etxean
 Antoltzailea: Udal
 Ongizate Saila

ZIN



**Zuzendaria: Ted Demme. Antzezle-
ak: Matt Dillon, M. Rapaport, M.
Perlich, T. Hutton, N. Emmerich,
Mira Sorvino, Uma Thurman.**

Beautiful girls

Mutil talde bat taberna batean biltzen da lige eta neska lagunez hitz egiteko. Tommy (M. Dillon) Sharon-ekin ari da irteten. Willi Marty-rekin maite-minduta dago. Paul-ek top modelak miresten ditu. Laugarren solaskideak Kev izena dauka eta bosgarrena lagun-nen inpultsoak gerarazten ahalegintzen den tipo helduagoa da.

23 osteguna

19,00 ELGOIBARKO IZARRA IDAZ-LEHIAKETEN SARI BANAKETA

Kultur Etxean

22,15 ZINE KLUBA

"Microcosmos"

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

24 ostirala

20,00 MORKAIKOREN BATZAR OROKORRA

Kultur Etxean

22,15 ZINE KLUBA

"Microcosmos"

Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

● Zazpikiren bilera

Zazpiki Irratiak bilera egingo du larunbatean, hilak 18, Ganbaran. Bileran hasteko ordua goizeko 11etarako dago jarrita. Arduradunek irratizaletu guztiei dei egiten diete bilerara agertzeko.

● Grabatu ikastaroa

Astelehenean, hilak 20, Egurrek antolatutako grabatu ikastaroa hasiko da. Otsailaren 7ra arte luzatuko dira klaseak, arratsaldeko 6etatik 8etara bitarteko ordutegian. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko Ubitarteko Egurren egoitzatik pasatu arra-

tsaldeko 6etatik aurrera.

● Elgoibarko Izarra Idaz-Lehiaketen sari banaketa

Datorren asteazkenean, hilak 22, Elgoibarko Izarrak antolatzen duen Idaz-Lehiaketen sari banaketa ekitaldia egingo da iluntzeko 7etan Kultur Etxean. Aurten 545 lan aurkeztu dira denera, 415 prosan eta 130 ber-tso-paperean atalean. Atal bakoitzean hiru maila daude eta maila bakoitzean bi onenak sarituko dira.



● Santa Ageda Bezperan koplakantari

Otsailaren 4an, asteartea, Elgoibarko Izarrak antolatutako koplariak baserriaz aterako dira. Santa Ageda eskea arratsaldeko 3ak aldera hasi eta gaueko 10ak aldera amaituko da, ohitura denez, San Migeleko soziedadean egingo den afariarekin. Parte hartu nahi duten guztiek, hilaren 24a baino lehenago Elgoibarko Izarraren lokalera dei dezakete (74 16 26 - Imanol).

● "Florido Pensil"

Bihar, hilak 17, San Anton jaien barruan "Florido Pensil" antzezlanaren taularatuko da Herriko Antzokian Tanttaka taldearen eskutik. Gerra ondoren Espainian indarrean egon zen hezkuntza sistemaren ankerkeria absurdo eta logikarik gabearren menpean gertatu zen mutiko talde baten gorabeherak azaltzen ditu, heziketa nazional-katolikoaren berri ematen duelarik. Tanttaka taldea 1983an sortu zen. 13 urte hauetan hamabost antzezlan egin dituzte, "Agur Eire Agur...", "Flaminmio", "Adagio Violentissimo", "Zilbor Hestea", "Peligro te quiero" etab. "Florido Pensil" antzezlaneko aktoreak oso ezagunak dira: Jose Ramon Soroz, Mikel Garmendia, Zorion Egileor, Enrique Díaz de Rada eta Paco Sagarzazu. Antzezlanaren euskaraz izango da eta gaueko 22,30etan hasiko da. Takila gaueko 9,30etan irekiko da.

T X A N - D A K

FARMAZIAK

	Eguez	Gauetz
16	Etxeberría	Anduaga
17	Ormazabal	Zabaleta
18	Etxeberría	Etxeberría
19	Etxeberría	Etxeberría
20	Etxeberría	Etxeberría
21	Ormazabal	Escala
22	Bidasolo	Bidasolo
23	Ormazabal	Ormazabal
24	Yudego	Yudego

ONGARRI zine kluba



Zuzendaria: C. Nuridsany eta M. Pérennou (Frantzia)

Microcosmos

Microcosmos-ek udako ekaitz baten osteko ondorioak azaltzen ditu:

"... amona mantalgorri baten zorigaitzak; matxinsalto baten arazoak; uretako armiarma baten banketea; ahari baten zimaurrea garraitzen duen kakalardoa; maitemindua dagoen erle baten emozio kilikagarria, etab...". Egileak biologoak dira zinegileak baino. 15 urteko ikerketa, bi urteko prestakuntza lanak, hiru urteko errodaia eta sei hilabeteko muntaia behar izan zituzten pelikula egiteko.

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ "LUR" HIZTEGI enziklopedikoa saltzen da. ☎ 79 78 26. Goizez 10etatik 1etara eta arratsaldez 4etatik 9etara.
- ◆ 1,05x2 luzerako OHE estreintatu berria salgai. ☎ 74 23 22
- ◆ ESKALADAKO MATERIALA salgai. 60x1'5 soka eta arnesa. Merke. ☎ 74 02 30
- ◆ SEAT RITMO bat salgai. Prezio onean. ☎ 19 50 89 Emilia
- ◆ PUEGEOT ST motorra saltzen dut. 49 cc., gutxi erabilia eta ondo zaindua. ☎ 74 06 33 (Xabier)
- ◆ OPEL KADET Beauty SS-2217 AK salgai. ☎ 74 15 45 (eguerdian eta gauean)
- ◆ Kotxesilla bat saltzen dut egoera oso onean eta merkea. ☎ 74 10 42
- ◆ Kitarra elektrikoa eta anplia erosiko nituzke. ☎ 74 37 23 (Eguerdian eta gauean)
- ◆ RENAULT 9 GTL kotxea saltzen dut. Oso egoera onean dago. ☎ 74 36 98
- ◆ Golf GTI SS 1260 AH bat saltzen dut. Egoera oso onean dago. ☎ 75 51 90
- ◆ SKIAK ETA BOTAK salgai. Dynastar 1,85ko skiak, Tyrolia loturekin. Botak (Nordica) 42-43. Egoera onean. ☎ 74 18 55 (Gauetz)
- ◆ Ford Fiesta batentzako EKIPAIAKAKO PARRILA saltzen dut prezio onean. Bai eta Ford Scort baterako gurpileko tapak ere. ☎ 74 27 93
- ◆ BUTANOZKO SUKALDE ia berria saltzen dut estrenatu gabeko labe batekin. ☎ 74 10 09
- ◆ MOTOR BAT erosiko nuke. ☎ 74 17 87
- ◆ Bigarren eskuko BIBOLIN BAT saltzen dut. Oso egoera onean. ☎ 74 23 13
- ◆ Erreperiderako BIZIKLETA salgai. Merke eta egoera onean. ☎ 74 11 29

◆ EROSI ◆

- ◆ Trikitia jotzeko bigarren eskuko SOINU TXIKI BAT erosiko nuke. ☎ 74 06 55 (Gauko 8etatik aurrera)

Lana

◆ ESKAERA ◆

- ◆ Ileapaintzailea naiz eta etxez etxe mozten dut ilea. Mari Karmen. ☎ 74 21 55
- ◆ Emakume bat eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ 74 04 75
- ◆ 23 urteko neska eskaintzen da sukaldari lanetarako edo garbiketarako egiteko. Gidatzeko baimenarekin. (Rosi) ☎ 74 36 38
- ◆ Garraiolaria eskaintzen da furgonetarekin. ☎ 989 09 31 86
- ◆ Harategi edo urdaitegi batean edo taberna batean pintxoak egiten lan egingo nuke. ☎ 74 11 40 (Iru-
ne)
- ◆ Administralari lanak egingo nituzke, esperientzia daukat. Segituan lanean hasteko prest nago. ☎ 74 39 39 (Puri)
- ◆ Administralari lanak egingo nituzke. Bai etxeko lanak egin eta umeak zaindu ere. ☎ 74 40 57 (Celsa)
- ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esprentzia daukat dependienta bezala. ☎ 74 22 78
- ◆ Haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 74 23 90
- ◆ Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. ☎ 74 15 09 / 74 30 30
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Esperientzia eta informez. ☎ 74 23 30 (Eva)
- ◆ Arratsaldeko 2,30etatik gaueko 9etara lan egiteko prest nago haurrak zaindu eta etxeko garbiketarako eginez. ☎ 74 30 90
- ◆ Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko prest nago goizez. ☎ 74 43 16 Marimar

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Neska edo emakume bat behar dut haurra zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ahal bada euskalduna. ☎ 74 35 86 (Eguerdian edo gauean)
- ◆ Martxan dagoen fotokopisteria eta paperdenda bat traspasatzen da Ermuan ezin atenditu dugulako. ☎ 17 07 07 / 74 21 43
- ◆ Esperientziadun neska bat behar da ileapaindegi batean lan egiteko ostiral eta larunbatetan. ☎ 74 43 88
- ◆ Publizitate eta promozio gaien enpresak komisioz komertzialak behar ditu (egun osoz edo erdiz). ☎ 70 12 33

Etxebizitzak

- ◆ Alokatzeko pisu bila gabiltza. Moblatuta eta 3 logelarekin. Joseba Astorkiza. ☎ 74 41 32
- ◆ Pisu amoblatua alokatzen da. ☎ 74 04 75
- ◆ Etxea saltzen da San Roken, Arregitorre 12 zenbakian. Erabili gabe dago eta hiru logela, 2 bainu, jangela, sukaldea, ganbara eta garajea ditu. ☎ 75 51 77
- ◆ Etxebizitza berritua eta buhardilla salgai dauzkat S. Frantzisko kalean. ☎ 74 01 84 (Elena)
- ◆ Pisu eta garajea salgai ditut San Inazio kalean. 3 logela, komuna, sukaldea, jangela eta ganbara eder bat. ☎ 909 62 90 74
- ◆ Etxe bat saltzen da Soroluzen. ☎ 75 11 44 (Justo)
- ◆ Elgoibarren edo Eibarren pisua nahi dut alokatzeko. Maria Oliva ☎ 74 16 30 (lanorduetan)
- ◆ Altzolan egoera onean dagoen buhardilla bat salgai. Prezio ona. ☎ 74 37 41
- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi
- ◆ Matematika finantzieroak ematen dituen norbait behar dugu. ☎ 74 13 18
- ◆ Partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH, Lehen zikloa eta ingelesa. ☎ 74 28 02

Partikularrak

- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi
- ◆ Matematika finantzieroak ematen dituen norbait behar dugu. ☎ 74 13 18
- ◆ Partikularrak ematen ditut. Lehen Hezkuntza, DBH, Lehen zikloa eta ingelesa. ☎ 74 28 02

Garajeak

- ◆ Garaje itxi bat alokatzen dut pista beltzean. ☎ 74 03 81- 74 15 01
- ◆ Garaje bat daukat saltzeko. Marraduna. Pista beltzean. ☎ 74 39 19 (Gauetz)
- ◆ Arregitorren garaje itxi bat saltzen da. ☎ 74 12 53
- ◆ Garajea salgai Karakolaren alboan, pista beltzean. Merke. ☎ 74 27 73

Agurrak

- ◆ Zorionak **Be-len Cordon**-i hिलaren 17an, ostirala, 5 urte bete-ko dituelako. Guraso eta zure anaia Asierren partez.



- ◆ Zorionak **Jose Antoniori** gaur, osteguna, urteak bete dituelako. Bere amaize eta alaben partez.



- ◆ Urtarrilaren 12an urteak bete ziotuen **Tere Garitagoitiari** zorionak bere etxekoan partez. Zorionak!

Bestelakoak

- ◆ 200 diapositibaz betetako kaxa bat galdu nuen larunbat gauean. ☎ 74 25 45
- ◆ **CARITAS**-ek butanozko estufa bat dauka emateko. ☎ 74 15 09 / 74 12 57

HEZIKETA IRAUNKORREKO PROGRAMA

1997.ko Urtarrila, Otsaila eta Martxo

AUTOMATIKA

	Hasiera	Orduak
■ Neumatika Industriala.	97.1.27	60
■ Hidraulika Industriala.	97.1.27	40
■ Mekanikarietzako Elektrizitate Industriala.	97.2.24	50
■ Automatak	97.2.24	40

INFORMATIKA

	Hasiera	Orduak
■ Windows 95	97.1.27	21
■ MS Word	97.2.5	30
■ MS Access	97.2.19	30
■ MS Excel	97.3.5	30
■ Internet	97.3.20	15

FABRIKAZIOA

	Hasiera	Orduak
■ Tornu CNCaren Programazioan Sarrera	97.1.27	40
■ Fresagailu CNCaren Programazioan Sarrera	97.1.27	40
■ CNC Tornu Erabiltzaileentzako Programazioa	97.2.17	40
■ CNC Fresagailu Erabiltzaileentzako Programazioa	97.2.17	40
■ SMARTCAM	97.2.17	40

DISEINUA

	Hasiera	Orduak
■ Fabrikazio Planoen Interpretazioa.	97.3.3	40
■ AutoCAD v.13	97.1.27	40



INFORMAZIOA ETA MATRIKULA

■ Erreminta Makina Institutua
San Roke Auzoa, 1
20870 Elgoibar

■ Tel: 943 744132
Fax: 943 744153
E.mail: fundac03@sarenet.es
■ 8:30 tatik-13:00 etara eta
14:30 etatik 17:30 etara


Lagunik onena zure telefonoaren ondoan!

Elgoibar eta Mendaroko zerbitzu eta profesional guztiak eskura izan ditzazun.




Zure helbidea edo telefonoa oker
badago edo ez bazara GIDAn
agertzen, deitu!!

74 37 04



EL FLORIDO
PENSIL



A. SOPENArena

ESKOLA NAZIONAL KATOLIKOAREN OROIMENA

Urtarrilaren 17a, ostirala

22,30etan

HERRIKO ANTZOKIAN

ELGOIBARKO UDALAK ANTOLATUA

